



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko urriaren 25a

118. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—10-22/LEY-00013. Foru Lege proiektua, 20.000.000 euroko aparteko kreditu bat ematen duena Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamenturako (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—10-22/DEC-00045. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Hartutako Kalte Zerebralaren Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (5. or.).

—10-22/DEC-00046. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu arbuiazen dituela Aragoiko Gobernuko lehendakariak esandako hitzak. Eledunen Batzarrak onetsia (5. or.).

F SAILA:

Galderak:

—10-22/POR-00337. Galdera, PLAINFONAREN aldaketari jarraikiz Ingurumena Zaintzeko Atalak izanen duen paperari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (6. or.).

—10-22/POR-00338. Galdera, Larragako ikastetxe publikoan D ereduko lerro bat irekitzeari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (6. or.).

—10-22/POR-00339. Galdera, Eliza Katolikoaren barnean osotasun fisikoaren, ukigabetasunaren eta sexu-askatasunaren aurkako erasoen biktimen errekonozimendurako batzordea eratzeari eta lanean hasteari buruzkoa. María Virginia Magdaleno Alegría andreak egin du (7. or.).

—10-22/POR-00340. Galdera, Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako lan-eskaintza publikoei eta oposizio-lehiaketen deialdiei eta egutegiei buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (8. or.).

—10-22/POR-00341. Galdera, Iruñeko 72-22 Topaketei buruzkoa. Ana Isabel Ansa Ascunce andreak egin du (8. or.).

—10-22/POR-00342. Galdera, Nafarroako administrazio publikoetan enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze prozesuak egiteko uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legearen 4. eta 6. artikuluei eta bosgarren xedapen gehigarriari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (9. or.).

- 10-22/POR-00343. Galdera, gainkostu energetikoak finantzatzeko laguntzei buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (10. or.).
- 10-22/POR-00344. Galdera, galdara komunitarioen erabiltzaileen energia-kontsumoko fakturen garestitzeari aurre egiteko laguntzei buruzkoa. José Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (10. or.).
- 10-22/POR-00345. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak osasun-sistemako profesionalak babestearen inguruan egindako adierazpenei buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (11. or.).
- 10-22/POR-00346. Galdera, nekazaritzako elikagaien SEEPEaren Ebro Food Valley proiektuari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (11. or.).
- 10-22/POR-00347. Galdera, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariaren kudeaketaren ondorioz Foruzaingoan sortutako egoerari buruzkoa. José Suárez Benito jaunak egin du (12. or.).
- 10-22/POR-00348. Galdera, toki entitateei libreki erabakitzeke zenbatekoak ordaintzeari buruzkoa. Yolanda Ibáñez Pérez andreak egin du (12. or.).
- 10-22/POR-00349. Galdera, 2018ko Poliziei buruzko Legearen erregelamendu bidezko garapenari buruzkoa. Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak egin du (13. or.).
- 10-22/POR-00350. Galdera, Lekaroz-Baztan Enpresa-campusaren enpresa-mintegiaren proiektuaren inguruan egindako informazio-eskaerei ez erantzuteari buruzkoa. Isabel Olave Ballarena andreak egin du (13. or.).
- 10-22/POR-00351. Galdera, Nafarroako Foru Komunitatean Banda Zabala Hedatzeko II. Planari buruzkoa. Ramón Alzorriz Goñi jaunak egin du (14. or.).
- 10-22/POR-00352. Galdera, automobilgintza-sektoreko enpresak eta lanpostuak mantentze aldera Nafarroako Gobernuak dituen ekimenei buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (14. or.).
- 10-22/POR-00353. Galdera, Nafarroako gizarte- eta ekonomia-eragileek Interreg POCTEFA Lurralde Lankidetzako programan parte hartzea bultzatzeko ekintzei buruzkoa. Jabi Arakama Urtiaga jaunak egin du (15. or.).
- 10-22/POR-00354. Galdera, apustuen gorakadari aurre egiteko hartu beharreko neurriei buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (15. or.).
- 10-22/POR-00355. Galdera, Nafarroan arrazoi ideologikoetan oinarritutako gorrotozko delituen inguruko gida bat argitaratzeari buruzkoa. Alberto Bonilla Zafra jaunak egin du (16. or.).
- 10-22/POR-00356. Galdera, Prestazio Handiko Trenaren (PHT) eta Euskal Y-aren loturari buruzkoa. Pablo Azkona Molinet jaunak egin du (17. or.).
- 10-22/POR-00357. Galdera, errenta-aitorpena egiteko betebeharririk izanen ez duten pertsonen buruzkoa. Mikel Buil García jaunak egin du (17. or.).
- 10-22/POR-00358. Galdera, 2023rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa. Ramón Alzorriz Goñi jaunak egin du (18. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 10-21/PON-00002. Nafarroako Parlamentuaren Erregelamendua egokitzeko ponentzia. txostena bukatzeko epea luzatzea (19. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

10-22/LEY-00013. Foru Lege proiektua, 20.000.000 euroko aparteko kreditu bat ematen duena Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamenturako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 24an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2022ko urriaren 19an hartutako Erabakiaren bidez, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamenturako 20.000.000 euroko aparteko kreditu bat ematen duen Foru Lege proiektua igorri dio Nafarroako Parlamentuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 158. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrearekin adostu ondoren, hona ERABAKIA:

1. Osoko Bilkuraren esku jartzea Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamenturako 20.000.000 euroko aparteko kreditu bat ematen duen Foru Lege proiektuaren izapidetzea zuzeneko eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia.

2. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proiektua, 20.000.000 euroko aparteko kreditu bat ematen duena Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamenturako

ATARIKOA

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuan ikusi da laguntza programa bat ezarri beharra dagoela, horren bidez finantzatzeko enpresek 2022ko otsailaren 1etik irailaren 30era izan dituzten gainkostu energetikoak; programa horretarako krediturik ez dago, ordea.

Errusiak Ukrainaren aurka egindako erasoaren ondorioz, EBn elektrizitatearen eta gasaren prezioetan izandako igoerak nabarmen eragin dio energiaren merkatuari. Gauzak horrela, 2022ko martxoaren 24an EBAOn argitara eman zen Errusiak Ukrainaren aurka egindako erasoaren ondorioz ekonomia sostengatzeko estatu-laguntzen arloko neurrietarako denbora-esparrua; horretan aurreikusten denez, aldi baterako laguntza emateak arindu dezake gasaren eta elektrizitatearen prezioen ez-ohiko gorakada, handi samarra izan baita.

2022ko ekainaren 13an, Europako Batzordeak Errusiak Ukraina inbaditu ondoren ekonomia sostengatzeko laguntzen arloko neurrietarako denbora-esparru nazionala onetsi zuen. Denbora-esparru nazional horretan xedatutakoarekin bat, agintari eskudunek zenbateko mugatuak dituzten aldi baterako laguntzak ematen ahalko dizkiete enpresa eta autonomoei. Laguntza horiek 2022ko abenduaren 31ra arte eman beharko dira.

2022ko abuztuaren 18an, Europako Batzordeak SA.102771 aldatzea onetsi zuen, gehieneko muga berriak ezartzeko: 500.000 euro enpresa bakoitzeko. Salbuespena dira arrantzaren, akuikulturaren eta nekazaritzako produktuen lehen mailako ekoizpenaren sektorean jardunean dauden enpresak.

Azaldutako egoera hori dela eta, Nafarroako enpresa guztiei eragiten diena, laguntza programa bat ezarri behar da, enpresek 2022ko otsailaren 1etik irailaren 30era izan dituzten gainkostu energetikoak finantzatzeko.

Kontuan hartuta ukitutako enpresen eta onuradun izan daitezkeen kopurua (4.000 inguru), kalkulatu da 20.000.000 euroko kreditua behar dela laguntza hauetarako.

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuan ez dago laguntza horietarako finantzabiderik.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikulua ezartzen du ezen, hurrengo ekitaldira arte berandutu ezin daitekeen gasturen bat aurrekontu indar-

dunaren kargura egin behar bada eta krediturik ez badago, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, foru lege proiektu bat bidaliko duela Nafarroako Parlamentura, aparteko kreditu bat ematekoa. Bigarren paragrafoan xedatzen du aparteko kreditua edozein gastu programatan erabilgarri dagoen kredituarekin finantzatzeko ahal dela.

1. artikulua. Aparteko kreditu bat ematea.

2022ko ekitaldian 20.000.000 euroko aparteko kreditu bat ematen da, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuaren beharrak finantzatzeko.

Kreditu hori aurrekontuko partida honi aplikatuko zaio:

PARTIDA	ZENBATEKOA
810001-81100-4701-422204 "Energiaren prezio altuen eraginpean dauden enpresentzako laguntzak"	20.000.000 euro

2. artikulua. Kreditu bereziaren finantzaketa.

20.000.000 euroko aparteko kreditu hori indarra duen sarrera-aurrekontuko 157001-17A00-1005-000000 "PFEZaren bidezko sarrerak" partidaren kargura finantzatuko da.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

10-22/DEC-00045. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Hartutako Kalte Zerebralaren Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2022ko urriaren 24an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Hartutako Kalte Zerebralaren Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin.

2. Nafarroako Parlamentuak ekitaldi bat egingen du heldu den urriaren 26an, 12:00etan, Nafarroako Hiru Hamabi Elkartearekin batera.

3. Nafarroako Parlamentuak kolore urdinez argiztatuko du bere fatxada urriaren 26an".

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-22/DEC-00046. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu arbuiatzen dituela Aragoiko Gobernu-ko lehendakariak esandako hitzak.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2022ko urriaren 24an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du arbuiatzen dituela Javier Lambán Aragoiko Gobernu-ko lehendakariaren hitzak, zeinen bidez esan baitu Nafarroako Foru Komunitatearen autonomia fiskala –Nafarroari sozietateen zerga propioa mantendu, ezarri eta arautzea ahalbidetzen diona– "benetan mingarria eta jasanezina" dela

eta horretara ohitu beharra dagoela "Konstituzioaren sorrerari bide eman zioten inguruabarrek berekin ekarri zutelako."

2. Nafarroako Parlamentuak adierazpen hau Aragoiko Gobernu-ko lehendakariari jakinaraziko dio".

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

10-22/POR-00337. Galdera, PLAINFONAREN aldaketari jarraikiz Ingurumena Zaintzeko Atalak izanen duen paperari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, PLAINFONAREN aldaketari jarraikiz Ingurumena Zaintzeko Atalak izanen duen paperari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Azken hilabeteetan, Nafarroako Gobernuak zenbait aldiz iragarri du espero duela azarorako prest edukitzea Nafarroako Foru Komunitateko Oihanetako Suteetarako Herri Babeseko Larrialdi Plan Bereziaren (PLAINFONA) aldaketa, suteak prebenitzeko estrategia "proaktibo" bat aplikatu ahal izateko.

Nafarroako Gobernuaren aurreikuspenen arabera, zer paper izanen du Ingurumena Zaintzeko Atalak PLAINFONAREN aldaketa horri jarraikiz?

Iruñean, 2022ko urriaren 14an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak,

10-22/POR-00338. Galdera, Larragako ikastetxe publikoan D ereduko lerro bat irekitzeari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, Larragako ikastetxe publikoan D ereduko lerro bat irekitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren el-dun Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gober-nuko Hezkuntzako kontseilari Carlos Gimeno Gur-pegui jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Larragako hamabi familiak Hezkuntza Departa-mentuari eskatu diote D ereduko lerro bat ireki-tzeko udalerriko eskola publikoan.

- Zer urrats egingen ditu zure departamentuak familia horiek beren seme-alabak 2023-24 ikastur-tean euskaraz matrikulatzeko duten eskubidea bermatze aldera?

Iruñean, 2022ko urriaren 19an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

10-22/POR-00339. Galdera, Eliza Katolikoaren barnean osotasun fisikoaren, ukigabetasunaren eta sexu-askatasunaren aurkako erasoen biktimen errekonozimendurako batzordea eratzeari eta lanean hasteari buruzkoa.

MARÍA VIRGINIA MAGDALENO ALEGRÍA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Virginia Magdaleno Alegría andreak aurkeztutako galdera, Eliza Katolikoaren barnean osotasun fisikoaren, ukigabetasunaren eta sexu-askatasunaren aurkako erasoen biktimen errekonozimendurako batzordea eratzeari eta lanean hasteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziale-an argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamen-tarioari atxikita dagoen Virginia Magdaleno Alegría andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Noizko du aurreikusita departamentuak eratu-ko dela eta lanean hasiko dela Eliza Katolikoaren barnean osotasun fisikoaren, ukigabetasunaren eta sexu-askatasunaren aurkako erasoen bikti-men errekonozimendurako batzordea?

Iruñean, 2022ko urriaren 19an

Foru parlamentaria: Virginia Magdaleno Alegría

10-22/POR-00340. Galdera, Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako lan- eskaintza publikoei eta oposizio-lehiaketan deialdiei eta egutegiei buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotatun handiko galdera, Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako lan-eskaintza publikoei eta oposizio-lehiaketan deialdiei eta egutegiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, urriaren 27ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Hezkuntzako administrazio publikoan, behin-behinekotasunaren maila sostengaezina da. Nafarroako Foru Komunitatea oso urrun dago % 8ko behin-behinekotasun indizea lortzetik, eta hori izango litzateke enplegu-egonkortasuna lortzeko xede optimoa, sistema unean-unean sortzen ahal diren aldagaietara egokitzuz joateko malgutasunari etsita, edonola ere.

Zer aurreikuspen eta egutegi ditu aurreikusita Hezkuntza Departamentuak Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako lan-eskaintza publikoei eta oposizio-lehiaketan deialdiei eta egutegiei dago-kienez?

Iruñean, 2022ko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

10-22/POR-00341. Galdera, Iruñeko 72-22 Topaketei buruzkoa.

ANA ISABEL ANSA ASCUNCE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Isabel Ansa Ascunce andreak Iruñeko 72-22 Topaketei buruz aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ana Ansa Ascunce andreak,

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kiroleko kontseilariak Legebiltzarreko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Urriaren 18an, bukatutzat jo ziren "Iruñeko 72-22 Topaketak". Ia ehun ahotsek lagunduta, XXI. menderako giltzarri diren oraingo eta etorkizuneko zenbait alderdi aztertu dira. Kontseilariaren beraren hitzetan, "hamahiru egun trinko hauetan, interpelazioaren zerbitzura egon dira filosofia, literatura, dantza, zinema eta teknologia, eta, beraz, pentsamolde-zabaltzearen zerbitzura".

Ekitaldietako parte-hartzaile kopuruek gain beste ebaluazio xehatuagorik ez dugunez, ahoz erantzuteko galdera hau egiten diot Kultura eta Kiroleko kontseilariari:

Departamentuak aurreikusi al du nola sustatu-ko duen ideia, proposamen eta planteamendu horiek sortu ziren eremuen zokoetatik ateratzea, herritarrengan eragina izan dezaten?

Iruñean, 2022ko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Ana Ansa Ascunce

10-22/POR-00342. Galdera, Nafarroako administrazio publikoetan enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze prozesuak egiteko uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legearen 4. eta 6. artikuluei eta bosgarren xedapen gehigarriari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako administrazio publikoetan enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze prozesuak egiteko uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legearen 4. eta 6. artikuluei eta bosgarren xedapen gehigarriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztzen dio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu dezan eta Gobernuak 2022ko urriaren 27ko Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Joan den urriaren 17an, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariaren jakinarazpen bat sartu zen Parlamentuko Erregistro Orokorrean. Horren bidez, Estatuko Administrazio Orokorrean eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Lankidetzeta Bartzordeak hartutako erabakiaren berri ematen da; erabaki horren bidez, hain zuzen ere, negoziazioak hasi ziren uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legearen 4. eta 6. artikuluen eta bosgarren xedapen gehigarriaren inguruan adierazitako desadostasunak argitze aldera. Lege horren bidez neurriak hartzen dira Nafarroako Administrazio Publikoetan egonkortze prozesuak gauzatzeko, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz.

Horrenbestez, honako galdera hau egiten dugu, ahoz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuaren ustez, foru legearen aipatutako artikuluen eta xedapen gehigarriaren edukia berez eta historikoki Nafarroarenak diren eskumenen garapena al da, eta ez al dituzte inola ere Estatuak arlo horretan lituzkeen eskumenak inbaditzen?

Iruñean, 2022ko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

10-22/POR-00343. Galdera, gainkostu energetikoak finantzatzeko laguntzei buruzkoa.

LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak aurkeztutako galdera, enpresen gainkostu energetikoak finantzatzeko laguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti

andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak foru-lege proiektu bat onestearen gaineko iragarpena egin du, 20 milioi euroko zenbatekoa duen aparteko kreditu bat emateko enpresen gainkostu energetikoak finantzatzeko; hori ikusita, honako galdera hau egiten du parlamentari honek:

- Noiz, zer prozeduraren bidez eta zer irizpideri jarraikiz emanen dira laguntza horiek?

Iruñean, 2022ko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

10-22/POR-00344. Galdera, galdara komunitarioen erabiltzaileen energia-kontsumoko fakturen garestitzeari aurre egiteko laguntzei buruzkoa.

JOSÉ LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkeztutako galdera, galdara komunitarioen erabiltzaileen energia-kontsumoko fakturen garestitzeari aurre egiteko laguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer neurri hartuko ditu zure gobernuak galdara komunitarioen erabiltzaileei datozen hiletan energia-kontsumoagatik ordaindu beharko dituzten fakturen neurri kanpoko garestitzeari aurre egiteko laguntzeko?

Iruñean, 2022ko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

10-22/POR-00345. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak osasun-sistemako profesionalak babestearen inguruan egindako adierazpenei buruzkoa.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztutako galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak osasun-sistemako profesionalak babestearen inguruan egindako adierazpenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Lehendakaria bat al dator Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak Osasun Batzordean egindako adierazpenei; alegia, uste al du ez direla gauza bera osasun-sisteman diharduten langileak babestea eta funtzio publikoko gainerako langileak babestea?

Iruñean, 2022ko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

10-22/POR-00346. Galdera, nekazaritzako elikagaien SEEPEaren *Ebro Food Valley* proiektuari buruzkoa.

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztutako galdera, nekazaritzako elikagaien SEEPEaren *Ebro Food Valley* proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuako lehendakariak noizko aurreikusten du Nekazaritzako elikagaien SEEPEaren *Ebro Food Valley* proiektua ebatzea, eta Nafarroarako zein litzateke amaierako zenbatekoa?

Iruñean, 2022ko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

10-22/POR-00347. Galdera, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariaren kudeaketaren ondorioz Foruzaingoan sortutako egoerari buruzkoa.

JOSÉ SUÁREZ BENITO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Suárez Benito jaunak aurkeztutako galdera, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariaren kudeaketaren ondorioz Foruzaingoan sortutako egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen José Suárez Benito jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer erabaki hartuko ditu Nafarroako Gobernuko lehendakariak lehen lehendakariorde eta Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariaren kudeaketaren ondorioz Foruzaingoan sortutako egoera sostengaezinenaren inguruan?

Iruñean, 2022ko urriaren 20an

Foru parlamentaria: José Suárez Benito

10-22/POR-00348. Galdera, toki entitateei libreki erabakitzeko zenbatekoak ordaintzeari buruzkoa.

YOLANDA IBÁÑEZ PÉREZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Yolanda Ibáñez Pérez andreak aurkeztutako galdera, toki entitateei libreki erabakitzeko zenbatekoak ordaintzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Yolanda Ibáñez Pérez andreak honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zergatik ez zaizkie ordaindu toki-entitateei libreki erabakitzeko zenbatekoak?

Iruñean, 2022ko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Yolanda Ibáñez Pérez

10-22/POR-00349. Galdera, 2018ko Poliziei buruzko Legearen erregelamendu bidezko garapenari buruzkoa.

BLANCA ISABEL REGÚLEZ ÁLVAREZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak aurkeztutako galdera, 2018ko Poliziei buruzko Legearen erregelamendu bidezko garapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Blanca Regúlez Álvarez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehen lehendakariorde eta Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko kontseilariak 2022ko urriaren 27ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

2023rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko aurreproiektuan aurreikusten al da negoziatorako nolabaiteko marjina uztea, 2018ko Poliziei buruzko Legea erregelamendu bidez garatze aldera?

Iruñean, 2022ko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Blanca Regúlez Álvarez

10-22/POR-00350. Galdera, Lekaroz-Baztan Enpresa-campusaren enpresa-mintegiaren proiektuaren inguruan egindako informazio-eskaerei ez erantzuteari buruzkoa.

ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak aurkeztutako galdera, Lekaroz-Baztan Enpresa-campusaren enpresa-mintegiaren proiektuaren inguruan egindako informazio-eskaerei ez erantzuteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Isabel Olave Ballarena andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak Batzordean ahoz erantzun dezan:

Zergatik ez diezu erantzuten Lekaroz-Baztan Enpresa Campusaren Enpresa Mintegiaren proiektuaren inguruan egindako informazio-eskaerei?

Iruñean, 2022ko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

10-22/POR-00351. Galdera, Nafarroako Foru Komunitatean Banda Zabala Hedatzeko II. Planari buruzkoa.

RAMÓN ALZORRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzorriz Goñi jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Foru Komunitatean Banda Zabala Hedatzeko II. Planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Lecumberri Urabeyen jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak 2022ko urriaren 27ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer bilakaera ari da izaten Nafarroako Foru Komunitatean Banda Zabala Hedatzeko II. Plana?

Iruñean, 2022ko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Javier Lecumberri Urabeyen

10-22/POR-00352. Galdera, automobilgintza-sektoreko enpresak eta lanpostuak mantentze aldera Nafarroako Gobernuak dituen ekimenei buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, automobilgintza-sektoreko enpresak eta lanpostuak mantentze aldera Nafarroako Gobernuak dituen ekimenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen José Javier Esparza Abaurrea jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer ekimen gauzatuko ditu zure gobernuak automobilgintza-sektoreko enpresak eta enplegua mantentzen laguntzeko, kontuan hartuta sektorea ibilgailu elektrikorantz eraldatzeko prozesuan dagoela?

Iruñean, 2022ko urriaren 20an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

10-22/POR-00353. Galdera, Nafarroako gizarte- eta ekonomia-eragileek Interreg POCTEFA Lurralde Lankidetzako programan parte hartzea bultzatzeko ekintzei buruzkoa.

JABI ARAKAMA URTIAGA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jabi Arakama Urtiaga jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako gizarte- eta ekonomia-eragileek Interreg POCTEFA Lurralde Lankidetzako programan parte hartzea bultzatzeko ekintzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Jabi Arakama Urtiaga jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko Harremanetako kontseilariak urriaren 27ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Kontuan hartuta laster Interreg POCTEFA Lurralde Lankidetzako programaren aldi berri bat hasiko dela 2021-2027 denbora-esparrurako, honako hau galdetzen diogu Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko Harremanetako kontseilariari:

Zer ekintza ari da egiten zure departamentua, sustatzeko Nafarroako gizarte- eta ekonomia-eragileek programa horretan parte hartzea?

Iruñean, 2022ko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Jabi Arakama Urtiaga

10-22/POR-00354. Galdera, apustuen gorakadari aurre egiteko hartu beharreko neurriei buruzkoa.

AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztutako galdera, apustuen gorakadari aurre egiteko hartu beharreko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Ainhoa Aznárez Igarza andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lehendakari-zako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak urriaren 27ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Azken datuek agerian utzi dutenez, Estatu mailan, apustuak ehuneko 8 areagotu dira 2021ekin alderatuta. Datu horiek kontuan hartuta, Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du beste prebentzio neurririk, 21/2022 Foru Legean, uztailaren 1ekoan –zeinaren bidez aldatzen baita 16/2006 Foru Legea, abenduaren 14koa, Jokoari buruzkoa– xedatutakoaz gain?

Iruñean, 2022ko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari

10-22/POR-00355. Galdera, Nafarroan arrazoi ideologikoetan oinarritutako gorrotozko delituen inguruko gida bat argitaratzeari buruzkoa.

ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroan arrazoi ideologikoetan oinarritutako gorrotozko delituen inguruko gida bat argitaratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Bonilla Zafra jaunak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernuak ba al du asmorik gida bat argitaratzeko arrazoi ideologikoetan oinarritutako Nafarroako gorrotozko delituen inguruan, LGTBIfobia arrazoietan oinarrituta gauzatutakoekin egokiro egin duen eran?

Iruñean, 2022ko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

10-22/POR-00356. Galdera, Prestazio Handiko Trenaren (PHT) eta Euskal Y-aren loturari buruzkoa.

PABLO AZKONA MOLINET JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azkona Molinet jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Prestazio Handiko Trenaren (PHT) eta Euskal Y-aren loturari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesiorako kontseilariak urriaren 27ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Prestazio Handiko Trenaren (PHT) eta Euskal Y-aren etorkizuneko loturari dagokionez, zeintzuk dira Lurralde Kohesiorako Departamentuak eta/edo Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioak eskatutako azterlanak?

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

10-22/POR-00357. Galdera, errenta-aitorpena egiteko betebeharririk izanen ez duten pertsonen buruzkoa.

MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, errenta-aitorpena egiteko betebeharririk izanen ez duten pertsonen buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak 2022ko urriaren 27ko Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Aurreko astean lortutako akordioari esker, urtean 14.500 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak dituzten pertsonen ez dute errenta-aitorpena egiteko betebeharririk izanen. Zenbat kotizatzaile eta nola eraginen die akordio horrek?

Iruñean, 2022ko irailaren 24an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

10-22/POR-00358. Galdera, 2023rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.*RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, 2023rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak 2022ko urriaren 27ko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

2023rako Nafarroako Aurrekontu Orokorren aurreproiektua onetsi ondoren, zer dakarte berekin aurrekontu horiek Nafarroako herritarrentzat?

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

10-21/PON-00002. Nafarroako Parlamentuaren Erregelamendua egokitzeko ponentzia.

TXOSTENA BUKATZEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 24an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Nafarroako Parlamentuaren Erregelamendua egokitzeko ponentziak 2022ko urriaren 22an harturiko erabakia, zeinaren bidez eskatzen baitu bere lanak bukatzeko epea 2022ko azaroaren 30era arte luzatzea:

1. PONENTZIAREN TXOSTENA BUKATZEKO EPEA 2022ko azaroaren 30era arte luzatzea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias
